Getxo

bizi ezazu

**Orri kopurua** / Nº de páginas: 2 **Data** / Fecha: 18-05-31

## PRENTSA-OHARRA / NOTA DE PRENSA

### Kantu Band Biotz Alai abesbatza plazan 300 ume eta 20 musikarirekin

### Kantu Band en la plaza Coro Biotz Alai con 300 menores y 20 músicos

*Kantu Band* ekitaldia izango da lehenengo aldiz datorren larunbatean, ekainak 2, 18:00etan, Algortako Biotz Alai abesbatza plazan, udalerriko zazpi ikastetxetako 150 ikasleren, udalerriko sei abesbatzetako 150 umeren eta Andres Isasi Musikalia elkarteko 20 musikariren partaidetzarekin. Getxoko Udalak udalerriko ikastetxeetan, eskola-orduotan eskaintzen dituen euskal kanta klaseetan (*Kanta klaseak*) ikasitakoa erakusteko ikasturte amaierako festa eta erakustaldia izango da *Kantu Band* ekitaldia.

Ikastetxe bakoitzak kantu bat abestuko du, herriko ume abesbatza baten laguntzarekin eta Musikalia elkarteak musika jarriko du. Parte hartuko duten ume abesbatzak dira Biotz Alai Txiki, Getxoko Musika Eskola-Arrigunaga, Lilura, Ondarberri, Soinu eta Txaramela.

*Kanta Klaseak* ekimenean parte hartu duten zortzi ikastetxetako (Azkorri, Zabala, Larrañazubi, Romo, San Ignacio eta Santisima Trinidad ikastetxeak eta Geroa eta San Nikolas ikastolak) ordezkariak izango dira larunbateko ikuskizunean abestuko dutenak. 2017/2018ko ikasturtean guztira Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako 425 ikaslek hartu dute parte, eta bertan betiko euskal

La plaza Coro Biotz Alai acogerá el sábado, 2 de junio, a las 18:00h., la celebración del primer espectáculo *Kantu Band*, con la participación de 150 alumnos y alumnas de siete centros escolares y otros tantos de coros infantiles del municipio, junto con la colaboración de 20 intérpretes de la asociación Musikalia Andres Isasi. *Kantu Band* es un espectáculo de fin de curso, organizado para mostrar de una manera festiva lo aprendido durante las clases de canciones vascas (*Kanta klaseak*), ofrecidas en horario escolar por el Ayuntamiento de Getxo en varios centros del municipio.

Cada centro escolar ofrecerá una canción, con la colaboración de un coro infantil del municipio y la música de la asociación Musikalia. Los coros que intervendrán son Biotz Alai Txiki, coro infantil Musika Eskola-Arrigunaga, Lilura, Ondarberri, coro infantil de Soinu y Txaramela.

En la actuación del sábado participarán representantes de los ocho centros (Azkorri, Zabala, Larrañazubi, Romo, San Ignacio y Santisima Trinidad, e ikastolas Geroa y San Nikolas) que participan en la actividad *Kanta Klaseak.* Durante el curso 2017/2018 han asistido un total de 425 alumnos/as de 5º y 6º de Educación Primaria, que han conocido y aprendido las canciones tradicionales vascas, el

kantuak ezagutu, ulertu eta abesten ikasi dituzte.

**(*) Kartela eskuratzeko:**
**http://www.getxo.eus/prensa.**
**Pasa-hitza: fotosycortes**

**Prentsa Bulegoa:** 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzea. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti. Adeitasunez.

sentido de las mismas y a cantarlas de manera individual y en grupo.

**(*) Para acceder a cartel:**
**http://www.getxo.eus/prensa.**
**Contraseña: fotosycortes**

**Oficina de prensa:** 94 466 03 20.

Rogamos la difusión de esta nota. Agradecemos la atención que siempre nos prestáis. Atentamente.